



4 BERTSOAK

Auzokoarekin auzolanean bertso- saio berezia

Bertsolaritzaren ohiko mugak gainditu zituen larunbat gaueko bertso-saioak. Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Unai Muñoa eta Ane Labaka bertsolariez gain, herriko hainbat talde eta norbanako aritu ziren euren ikuskizun berezian bitartez Manuel Lekuonan giro polita sortzen.



Amaraun jaialdi erraldoia larunbatean

Arrakastatsua izan zen Loidi-Barrengo pilotalekuan ospatutako jaialdia

Guraso, gaztetxo, begirale... Denek pasatu zuten primeran Loidi-Barrenengo pilotalekuan antolatu zuten Amaraun Jaialdian. Goizean goizetik puzgarriak, giza-futbolina, tailerak eta hainbat mahai-joko ezberdinez gozatu ahal izan zuten gaztetxoek. Makarroiak bazkaltzeko osteratxo bat egin ostean, arratsaldean magia ikuskizuna, mozerro desfilea, berbena eta txokolatada izan zituzten gozagarri.



Jende ugari hurbildu zen Amaraun jaialdiaz gozatzera, bertan, tailerak, puzgailuak, giza-futbolina, mahai jolasak... izan zituzten.

6 ARETO-FUTBOLA

Finalurrekoetako joaneko partidek ez dute ezer erabaki

Ostadar SKT-k antolatzen duen areto-futbol txapelketa azken txanpan sartua dago. Final handirako txartela esku-ratze borrokan honako lau talde hauek ditugu: ISU Leihoak, Izkiña, Txindoki eta Buenetxea. Ostiralean jokatu ziren finalurrekoen joaneko bi partidak eta itzuliko partidek erabaki beharko dute zein bi talde ariko diren elkarren aurka maiatzaren 19ko final handian. Oraingoz, honako hauek dira emaitzak: Txindoki 1 - Izkiña 0 eta ISU Leihoak 2 - Buenetxea 1. Lau taldeak daude sailkatzeko aukerakin oraindik.

Ondo baino hobeto aterata zen Amaraun jaialdia. Primerako jaialdia prestatu zuten Ttaku-nekoek Udalaren laguntzaz eta haur, begirale zein guraso gustura aritu ziren egun osoan zehar gauza ezberdinak eginez.

Goizean puzgarriak

Goiza saltoka hasi zuten gehienek, bi puzgarri handi jarri baitzituzten Loidi-Barrengo frontoian.

Horretaz gain, makina bat haur ikusi genituen mahai-joko ezberdinetan jolasten: bilarrean, pin-pongean, egurrezko blokeekin eraikuntzak egiten, globo-tailerra ere bazen... Sekulako festa antolatu zuten gosea egin eta bazkaltzeko ordua etorri zen arte.

Makarronada bazkaltzeko

Goiza alde batetik bestera

korrika eta saltoka aritu ostean, makarronada handi bat egin zuten 100 haurrentzat. Behin sabelak beteta, arratsaldeko saioari ekin zioten.

Desfilea eta berbena

Denetariko mozerroak ikusi genituen desfilean. Suhiltzailak, kazetariak, oesteko cowboy-ak, printzesak, piratak... Kolore guztietako pertsonaia batu zitzaizkigun Loidi-Barrengo frontoian guraso ugariren begiradapean.

Behin desfileko opariak banatuta, magia emanaldi bat eskaini zuten herriko lau gaztetxok. Zur eta lur utzi zuten bat baino gehiago eta eguna borobiltzeko, Xilipurdi taldearen berbena eta txokolatada goxoa izan zituzten.



Herriko lau gaztetxok euren magia dohainak erakutsi zizkieten herritarrei.

**USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA**

IEFPS USURBIL GLHBI

Ate irekiak maiatzaren 14ean eta 19an

**Goi-mailako
Erdi-mailako
HEZIKETA
ZIKLOAK**

Mekanika

Elektrizitatea

Administraritza

**Energia eta ura
Mantenimendua**

Etarte bidea 9 (Zubieta) 20170 USURBIL - Tel.: 943 364 600 - e-mail: eskola@lhusurbil.com

Adituak dio



Mari Karmen Ormazabal

Ttakunek langile ohia

Buruntza mendiko Urnieta aldeko magalean dago Azkorte izeneko ermita. Garai batean gorago zegoen, harrobiaren goialdean, baina honen leku beharragatik bota egin zuten (harrobiaren eraginez erori baino lehen) eta pixka bat beherago eraiki, Elorria baserriaren inguruan alegia.

Izan ere Azkorte Erromeria ez litzateke horrelakoa izango bere garaian Elorria baserria eta bertako etxekoandrea, Mikeli, izan ez balira. Hauek mantendu zuten erromeriarren izpiritua.

Ttakunek berriz, Azkorte Erromeriarren antolaketa hartu zuela hamazazpi urte inguru izango dira (baten bat gehiago agian...). Azkorte Baselizaren Lagunak Elkarteak sustatu du beti ere erromeri hau eta beraiek eskatuta horrela bete da urtetan, eta beteko da hurrengoetan ere, ziur.

Baina badira hainbat urte, sei edo zazpi inguru, Elorria baserria saldu egin zutela, eta geroztik erromeria ermitaren inguruan egin da. Urte askotan zehar herri-ugar bildu da ermitaren inguruan ospatzen den erromerian. Meza entzun eta gero, pintxo bat hartu ardotxo batekin, herri kirolak ikusi, bertsolarien txantekin barre egin, eta trikitixaren doinuarekin, denok etxera.

Hala ere, baditu hainbat bitxikeri Azkorte Erromeriak, izan ere bi herriek ospatzen dute erromeri berdina. Urnieta udalerririk Santa Krutz egunean eginen du festa bertan, maiatzaren 3an alegia, eta Lasarte-Oriak, Ttakunek antolatuta, hurrengo igandean. Aurtengoan, maiatzaren 6an zegokion, atzo alegia.

Meza, pintxoak, salda beroa, trikitixaren doinuak, bertsolariak, herri-kirolak... aurtan ere, Azkorte Erromeriaz gozatzeko aukera ederra izan zen atzokoan.

Jan, edan, dantza...

Azkorte erromeria ospatu genuen atzo. Oinarrian erromeria egun jakin batean mendira joatea dela esan daiteke. Egundak berezia eginen duena, santu edo santa batek basiliza edo basilika daukan tontorrera joaten dela da, honen omenezko eguna ospatzeko asmotan.

Euskal Herriko mendi askotan aurkitzen ditugu eraikin erlijiosoak eta ondorioz, bakoitzak bere erromeria eguna dauka, batzuk besteak baino ezagunagoak Ernio edota Urkiolako erromeriak kasu.

Zenbait lekutan honakoa ospatzearren ohitura galtzen joan da elizkizunek indarra galtzarekin batera, baina hemen Lasarte-Oria, eutsi nahi izan zaio ohitura honi nahiz eta Lasarte-Oria udalerrira sortzarekin batera, Azkor-

te, Buruntza mendiko basiliza, Urnieta eremuan sartu. Oriatarrek bereziki kuttuna dute Azkorte, bizilagun talde batek sustatuta mantendu dute lotura hau. Egundak antolatzen badu ere Mari Karmenek bere zutabeaz azaldu moduan.

Erromeriak ordea, beste alderdi ludiko bat eduki du beti eta festa giro eta xarma horrek erakartzen du egun jende gehien. Garai batean, neska-mutilak elkar ezagutzeko aukera zuten horrelako egunetan eta ezagutza berriak egin ezean, egun pasa ederra egiteko aitzakia zuten. Tabernetako parrandak egun batez utzi eta mendian jan, edan eta dantzatzeko aukera polita eskaintzen dute atzokoa bezalako egunek.

Hitz eta pitz

Azkorte erromeriarra joaten al zara?



Jose Zato Benito

Lehen joaten nintzen, goizean goiz, baina bihotzak huts-egin zidanetik ez. Ondo nabil baina ez dut esfortzurik egin nahi. Beti oinez igo naiz hara. Adarra, Ernio, Txindoki... mendira joatea beti izan dut gustuko. Azkorte paraje ederra da gainera. 1956an heldu nintzen Salamankatik, beti gustatu izan zait parte hartzea eta giro ona egoten da. Politik dira, batez ere, herri kirolak.



Jose Ramon Arteaga

Ondo ezagutzen dut Azkorte erromeria, baina ez naiz beti joaten, azken aldiz duela bost bat urte. Oso giro ona egoten da, eguerdian batez ere, euskal festan: harrijasotzaila, aizkolari, erromeria... Ondokoa naiz, eta ondo dago aukeroa baserritarrak ikusteko... Aurtan ere, saiatu naiz andrearekin konpondu eta libre hartzeko modua eginen, bertan izateko.



Gaspar Azozena eta Kari Olazabal

Guk periodikoan ikusita ezagutzen dugu erromeria, baina beti okindegian lana egin izan dugunez, ez gara inoiz joan. Orain jubilatuta gara, baina hezurrak ez digute laguntzen, herriak eta beste, ondo eduki behar dira hara igotzeko. Badakigu autobusa egoten dela... joan ez gara joan, baina eguraldi ona egitea nahi bai, noski, joaten direnentzat.



Olatz Begiristain

Ezagutzen dut Azkorte erromeria, jada hiruzpalau aldiz egon naiz eta bertan. Ibiltzeagatik, kirol apur bat egiteagatik, joaten naiz, nire burua animatzeko, bestela ez dut eta ezer eginen. Aurtan ere lagun batekin joateko erabakia hartu dut, eta oinez hurbiltzeko, beraz. Lekua zoragarria da, oso polita. Zer edo zer jan, edan eta dantza egin ohi dut.

Iruditan



Azkorte basiliza 1933. urteko argazkia. Egungoa honen harriekin berreraiki zen. Gure Gipuzkoa

Azkorte basiliza, Urnietarrena berez, Oriatarren kuttuna

Azkorte Kristo Santuaren ermita Urnieta mugapean egon arren Oriatarrek berezkitzat izan dute beti. Egundak duen kokalekutik 100 metrora zegoen basiliza zaharra. 1970. urtean harrobi kontrolpeko leherketa sistemak huts egin eta elizaren zati handi bat erori egin zen. Onduan ekin zioten egungo kokalekuan eliza berreraikitzeari. Aurrekoaren neurri eta banaketa errespetatuz eraiki bazen ere, kanpai-horma lekuz aldatu zen abside gainean jarri. Berreraikitze lan honetan oriatar asko jardun ziren auzolanean.

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskara Batzordea



EUSKO JAURLARITZA KULTURA SAILA



GFAko Kultura eta Euskara Departamendua

JAIA



Hurrengo larunbaterako jaialdi handia prestatu duten elkarteetako kideak, Pupu eta Lore eta udal ordezkariak aurkezpenean.

Festa handia Lasarte-Orian

Pirritx, Porrotx eta Marimototsen emanaldi soila izan behar zuena, festa handia bilakatu da, herriko zein kanpoko kolaborazioei esker

Maiatzaren 12an egun osoko egitarau oparo eta zabala antolatu dute haurrentzat herriko zenbait taldek Udalaren laguntzarekin: Kukuka dantza eta antzerki eskola, Jalgune elkarte, eta Pirritx, Porrotx eta Mari Motots herriko pailazoak elkartu dira, euren asmoak batean bildu eta festa berezia antolatzeko. Gainera, Deabru Beltzak kale ikuskizuna eguraldiagatik bi aldiz atzeratu da azken hilabeteotan eta egun horretan jarri du Udalak. Eguerdian aurkeztu dute jai eguna kultur etxean.

Pirritx, Porrotx eta Mari Mototsen lan berria ekartzeko asmoa zuen Udalak Boris Nogalesen esan duenez, eta horri beste egitarau guztia gehitu zaiola nabarmendu du herriko elkarten bultzadari esker. Emanaldi bat izan behar zuena egun osoko festa bilakatu da, bide batez, Kukukaren 10. urteurrena ospatzeko hamabostaldinari hasiera emanez. Pailazoez gain, Bonberenea txaranga, Motxila 21 musika taldea, Deabru Beltzak taldea izango ditugu herrian.

Jalguneren lagunak

Motxila 21 Iruñeko musika taldean Down Sindromea dutenek jotzen dute besteak beste Drogas Barricada taldeko abeslari ohiarekin batera. Aurten 10 urte bete ditu Jalgune eta ospakizunen egitarau zabalaren barruan kokatzen da talde berezi honen bisita.

Udalaren Gizarte Zerbitzuetako buru den Gorka Lizarragak prentsaurrekoan nabarmendu du jai honetan ikusiko dela Jalgunek egiten duen lan oparoa, batez ere, laguntza behar duten haur eta gaztetxoan aisiaren arloan.

"Garrantzitsua da pertsona horiek herrian egiten diren kultur ekitaldi eta aisialdi ekintzetan bateratzea eta parte hartzea. Honelako zenbat eta ekitaldi gehiago antolatu hobeto" esan du Lizarragak.

Iaz Verdini dantza taldea gonbidatu zuen Jalgunek eta aurten Motxila 21 ekartzea erabaki du, pailazoen diskoan abesti bat grabatu dutela jakin ondoren.

Pailazoek udalari esker ona

Joxe Mari Agirretxe, Porrotxek, eskerrak eman dizkio Udalari berriro "gure herrian" aritzeko aukera emateagatik. Atzo aurkeztu zen maratoiarekin lotu zuen pailazo taldearen sorrera, duela 26 urte bata eta duela 25 bestea "helburu berberarekin" euskara bultzatzea alegia.

Agirretxeren iritziz, 25 urtean gauzak aldatu dira, "herri politagoa daukagu" etxeei baino pertsona begiratu, "euskaraz bizi diren elkarte berriak sortu direlako esparru guztietan eta pozik sentitzen gara pailazo bezala eta pertsona bezala" esan du. Londresetik etorri berriak

diren pailazoak munduko eta Euskal Herriko hainbat lekutan egon badira ere, beraien bihotza "hemen" dagoela esan du Porrotxek, "hemen jaio gara, lasarteoriatarak gara, gure herria dagoen gauzarik handiena da eta toki guztietara Lasarte-Oriako izaera eraman dugu harro eta pozik".

Egitaraua

Goizeko 11:00etan Bonberenea txarangarekin hasiko da festa. Desfilea izango da herriko kaleetan barrena eta honetan Kukuka antzerki eta dantza eskolako kideak, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak eta Jalguneko gazteak parte hartuko dute. Antolatzaileek herritarrei desfilearekin bat egitera deitzen diete.

12:00eta kontzertua eskainiko du Motxila 21 taldeak, arratsaldean herriko pailazoek Zazpikoloroa ikuskizuna eskainiko dute bi aldiz, 16:30 eta 19:00etan Manuel Lekuona kultur-etxean. Lehen saioa Motxila 21 taldeko lagunak izango dira pailazoekin eta bigarrenean Kukukakoak. Azkenik 21:30ean hasiko da Deabru Beltzak taldearen kale ikuskizuna.

Udalaren oharrak

Udalak bi ohar luzatu zituen, batetik Zazpikoloroa ikusteko sarrerak ia agortu direla jakinarazteko, -www.lasarteoriasaren.eu web orrialdean eta kultur etxeko leihatilan daude salgai- eta bestetik gurasoei ikuskizunera ahal bada haurren aukerak gabe joan daitezela eskatzeko.

UDALEKUAK

Udan begirale lanean

Udako Txokoak egitasmoan edo udaleku itxietan, uztaila eta abuztuan, begirale izan nahi duten gazteek orain dute aukera izena emateko.

Begirale izateko baldintza bakarrak 18 urte baino gehiago izatea eta euskaraz komunikatzeko gai izatea dira.

Honetarako zenbait bide dituzte interesatuek: mezu bat bidali dezakete aisia@ttakun.com helbidera edo Ttakuneko bulegotik, Geltoki kale 4 zenbakitik, pasa daitezke. Azken eguna maiatzaren 10a da.

UDALBATZARRA

Mozio ezberdinak aztertuko dira

Udalbatzarrak ohiko bilkura egingo du bihar, arratsaldeko 18:30etik aurrera.

PSE-EEK eta Bildu aurkeztutako hiru mozio eztabaituko dira. "Michelingo futbol-zelaiari belar artifiziala aldatzeari buruzko mozioa" eta "Gazteen lokala arautuko dituen ordenantza bat egiteari buruzko mozioa" sartu ditu PSE-EEK j; Bilduk, aldiz, "Lodosako Ibaialde ikastolari laguntzeko mozioa" babestuko du.

Amaieran, galderak eta erreguak egiteko aukera izango dute alderdiak ordezkarik eta herritarrek.

BIYAK BAT

Irteera Lourdesera

Biyak Bat erretiratuen elkarteak Lourdesera txangoa antolatu du maiatzaren 17an. Goizeko 7:30ean aterako da autobusa Lasarte-Oriatik. Lourdesera iritsi eta 11:00etan, On Ramon Uribetxeberriak emandako meza izango da. Ostean, denbora librekoa izango da bazkal ordua arte, hau da, 13:00ak arte.

Jarraian, Betharram-eko kobazuloa bisitatuko da. Bisita honek hiru zati ditu, bata oinez, bestea barkuan eta azken zatia txu-txu tren batean egiten dira.

Txangoaren prezioa 34 euro da elkarteak bazkideentzako eta bazkide ez direnek 38 euro ordaindu behar dituzte.

Izena ematea asteazkenean, maiatzaren 9an, 10:00etan irekiko da.



LASARTE-ORIA AUZO ELKARTEA

Margo eta marrazki erakusketa

Lasarte-Oria Auzo Elkarteak marrazki eta margo ikasleek erakusketa egingo dute Manuel Lekuona kultur-etxean.

Maiatzaren 9tik 16ra Oskar Tena irakaslearen laguntza egin dituzten lanak erakutsiko dituzte astelehenean ostiralera arratsaldeko 18:00etatik 21:00etara.

SAN PEDROAK 2012

Kartela aukeratzeko lehiaketa martxan

San Pedro jaiak iragartzeko kartela lehiaketa bidez aukeratu du aurtien Lasarte-Oriako Udalak.

Irabazlearentzat 300 eurotako saria izango da. Nahi duen edonork parte hartu ahal izango du lehiaketan eta nahi beste proposamen aurkeztu ditzake bakoitzak.

"San Pedro Jaiak Lasarte-Oria 2012" goiburua eraman behar du eta teknika erabat librekoa da.

Kartela euskarri fisikoan edo digitalean aurkeztu daitezke Manuel Lekuona kultur-etxeko Gazteen Informaziozako Bulegoan, astelehenean ostiralera, goizez 11:00etatik 13:00etara eta arratsaldez 16:00etatik 19:00etara bitartean. Kartelaren atzeko aldean bere izenburua jarriko da eta kartelarekin batera gutun-azal itxi bat, egilearen datu pertsonal eta harremanetarako zenbaki eta helbideekin. Lanak aurkezteko epea maiatzaren 18an itxiko da.

Lehiaketako baldintza guztiak www.lasarteoriasaren.eu edo www.lasarte-oria.org orrialdeetan aurki daitezke.



Lau bertsolariek ale politak utzi zituzten saio berezi honetan.



Bertsolarien azken agurrarekin batera, hainbat herritar eta 8. Euskararen Maratoiko zortzikotea oholtzaratu ziren.



Mundialak Gara abesbatzako etorkinak ere euskaraz abestera ausartu ziren.



Txalaparta doinurik ez zen falta izan bertso emanaldian.



Amaia G. Caballeroren azken orduko hutsa tarteko, Jokin Aierregarai eta Enara leregik primeran egin zuten dantzan.



Kukukak Gernikako bonbardaketaren inguruko antzerkia eskaini zuen.

Auzokoarekin auzolanean

► *Udaberriko bertso-saioak ohikoa den bertso jardunaz gain, herriko taldeen kolaborazioa ere izan zuen*

Lasarte-Oria herri bizia dela argi eta garbi geratu zen beste behin ere larunbat gauean Manuel Lekuona kultur-etxean burutu zen Udaberriko bertso-saioan. Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Ane Labaka eta Unai Muñoa bertsolariekin batera, herriko hainbat talde eta norbanakok parte-hartu baitzuten emanaldian.

Jon ALTUNA EGITEGI

O hiko bertso-emanaldiez haratago joan zen Lasarte-Oriako bertso eskolak Ttakun kultur elkartearekin elkarlanean antolatutako ikuskizuna, dantza, antzerkia, musika, kantua etab. izan baitziren kultur-etxea ia goraino bete zuten ikusleen gozagarri.

Emanaldi oparoa

Gaua herriko gazteen bertso-eskolako sei neska-mutikoren jardunarekin hasi zen.

Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Ane Labaka eta Unai Muñoa agurrak bota eta Xumelako koruaren txanda etorri zen. Hauek kantuan egi-

ten zuten bitartean, Enara leregi eta Jokin Aierregarai dantzari euren dohainak erakutsi zituzten ohol-tza gainean.

Ostean, Mundialak Gara taldeko etorkinek euskaraz kantatzeko ausardia eduki zuten, ikusleen aldetik txalo zaparrada handia jasoz.

Kirolak ere izan zuen tartetik larunbateko saioan, Beltzak-Ostadar rugby eskolako kideek "touch" bat (alboko-sakea) egin eta Lujanbio errugbia egin nahi duen alabaren amaren azalean jarri zuten.

Txalapartak ere betidanik izan du leku berezia lasarte-oriatarren bihotzetan. Txalagore txalapartarien ttakun eta herrenaren erritmora, puntuka aritu ziren Egaña eta Muñoa.

Kukuka dantza eta antzerki eskolak ere izan zuen zeresanik emanaldian. Besteak beste, Gernikako bonbardaketaren antzerki hunkigarri bat eskaini zuten, "Gernika erre ziguten, baina zutunik dago arbola" izan zuten gaitzat bertsolariek eta ale politak utzi zituzten garaiko argazkiez girotuta.

Bestalde, Labakak gogoan izan zituen Presoen Lagunak Taldea eta herriko Txurdi preso politikoa, hiru bertso sakon eskainiz bie.

Erketz dantza taldekoek Egaña eta Aneren bertso-doinuen pean dantzan aritu behar izan zuten ariketa zail batean.

Horiez gain, Udal Musika Eskola eta herriko hainbat musikari, dantzari eta antzerkilaritza aritu ziren gaua girotzen.

Amaitezko, puntukako saioan umore ukitua jarri zuten lau bertsolariek eta Euskararen 8. Maratoiko zortzikotea ere oholtzaratu zen.

Mikel Bermejo Umoregilea

“Komedia ikasten ari naiz Madrilen”

■ Santiago Segura umorista, aktore eta zinegile ezagunaren lehengusu Jorge du irakasle
 ■ Madrid Comedy Clubean ari da ■ Ekainaren 26an bakarriketa bat egingo du Abend-en

Irribarrea ez du sekula galtzen Mikel Bermejo bakarriketa-egileak. Gustoko du barre egin eta barre eragitea, 20 urteko gaztea espezialista da gauza guztiei alderdi ona ikusten, edozein lekutan sor baitezake bakarriketa dotore bat. Gaur egun, Madril aldean ari da komediaren nondik norakoak ikasten eta pixkanaka maila hobetzen ari dela nabari du. Bertan, proiektu berri batean sartua dabil burubelarri, “Madrid Comedy Club” izeneko taldean.

Jon ALTUNA EGITEGI

Aurrera begira, euskara eta ingelesezko bakarriketak osatu eta gidoilari gisa jardutea da amets Mikel Bermejok. Ekainaren 26an izango du herritarren aurrean bere dohainak erakusteko aukera, Abend tabernan emanaldia hitzartu duela esan baitigu.

Nondik datorkizu umorea egiteko zaletasuna? Zerk bultzatu zintuen honetan hastera?

Familian ez dago inor umorengintzan ibiltzen denik, aita pixka bat umorezalea da, baina ez gehiegi ere. Nire lehen pausoak lagunekin txisteak egitea izan zen.

Gerora monologo batzuk egiten hasia bururatu zitzaidan eta nire lanak hemen inguruko leku eta hedabideetan aurkeztuz joan nintzen. Hasiera haietan txiste herriko edo aurrez egituratuak egiten nituen. Baina gero nireak, propioak, egiten hasi nintzen eta pentsatu nuen umorengintzarako balio nezakeela.

Bakarriketa on bat osatzeko errezeta zein da?

Irudimen asko eduki behar duzu, edozein arlotan bezala. Garrantzitsua iruditzen zait gai guztiei zure iritzia edo ikuspuntua ematea, gehienetan egiazko gauzak kontatzea da balio duena, benetan gertatu direnak. Esaten duzuna errealtatearekin bat baldin badator grazia eukiko du zior.

Horretaz gain, txistearen egitura egokia zein den jakin behar duzu, hasieratik errematera indarra gal ez dezan.

Gauza pertsonalak erabiltzen dituzu bakarriketak osatzeko edo kanpotik hartzen dituzu?

Denetarik, baina gehienbat niri gertatu zaizkidan pasarteak erabiltzen ditut. Gertatzen zaizkidan gauza negatiboei aurpegi ona aterata egiten ditut sarri monologo onenak.

Madrilen gauza asko

daude ikusi eta ikasteko, kultura askotako jendea batzen da bertan... Bestela ere, eguneroko edozein gai izan daiteke monologo batetarako egokia: mahaia, boligrafoa, Errege familia... zer edo zer aterako da beti.

Hobekuntzarik nabaritu al duzu hasi zinenetik?

Hobetzen zozen heinean, bakarriketen mundua zailagoa ikusten duzu. Pentsatzen duzu zuk egun batean egindako txiste oso ona dela, baina zure atetik datorrenak hobetu egiten du eta hurrengo egunean are hobea egitera behartuta sentitzen zara. Konpetentzia gogorra da bakarriketen munduan. Askotan galdetzen diot neure buruari merezi ote duen hainbesteko lanak...

Bestalde, txiste berbera modu desberdinean hartzen du jendeak sarritan, eta zure ustez sekulako txiste denak ez die batere graziarik egiten, baina beste batzuetan, zure ustez txiste kaxkarra denak sekulako arrakasta edukitzen du... Ezin da inoiz jakin.

Euskaraz umorea egitea erraza al da? Erdarara jo ohi duzu umorea egiterako orduan.

Desberdina da. Niri errazagoa zait erderaz egitea, baina euskaraz egitea niretzako erronka moduko bat ere bada. Aurrera begira, 25 minutuko euskara hutsezko bakarriketa bat osatzea dut begiz jota.

Zer moduz Madril aldean? Hiri handia, bitziza berria, etxetik urrun...

Oso ondo, komedia ikasten ari naiz bertan. Lagun-irakasle bat daukat Madrilen, Jorge Segura, Santiago Seguraren lehengusua. Alderdi askotan laguntzen dit, aita bat bezala



daukat jadanik han.

Bitziza Madril bezalako hiri handi batean zaila da, agobio pixka bat ematen du: jendetza handia, metroa etab. Hala ere, ez zait hain gogorra egiten ari, Arte Dramatikoa ikasten ari diren Erik Azallus herritarra eta beste neska batekin bizi bainaiz han. Baina zenbait momentutan gogorra ere egiten da, familia eta lagunak Lasarten dauzkadalako.

Zer da Madrid Comedy Club? Zer egiten duzue bertan? Zeintzuk osatzen duzue?

Geroz eta jende gehiago etortzen da gure klubak eskaintzen dituen ikuskizunak ikustera. Guk, bakarriketen munduan hasiberriak direnei 3 minutu ematen dizkiegu monologo bat osatzeko. Jendeari gustatzen bazaio, hurrengo emanaldirako minutu bat irabaziko dute, hurrengoan agian irabazitako hori galduko dute... Jendeak ordaindu egiten du gu ikusteagatik eta maila mantendu beharra dago, horretarako daukagu puntuazio sistema hori.

Hiru pertsonak eramaten dugu proiektu berezi hau, Jaime Pastor, Jorge Segura eta hirurok. Jorgek aurkeztu egiten du saioa, Jaime eta biok musikaren arloa eramaten dugu jendea girotzen joan dadin.

Non egiten dituzue emanaldiak?

Madril erdiguneko bi tabernan egiten ditugu saioak

asteen zehar. Gero, hilabete behin Vallekas auzoko taberna dotore batean biltzen ditugu hilabeteko umoregile onenak.

Berezia izaten da, Paramount Comedy-ko jende profesionala, telebista saio desberdinetako gidoilariak etab. egoten baitira bertan. Asko gozatzen dugu "Hebe" izeneko tabernan, gau "makarra" izaten da, zentsurarik gabea, edozer esan daiteke 200 lagunuen aurrean inolako beldurrik gabe. Ni hirutan izan naiz bertan bakarriketelari.

Euskal Herrian ba al dago Comedy Club-ik?

Espainiako hainbat hirik badute euren Comedy Club-a eta hemendik urte batzuetara Donosti Comedy Club osatzeko asmoa dago.

Desberdinak al dira Madril eta Euskal Herriko ikusleak?

Bai. Euskal Herrian gogo gehiago dago, beroagoa izaten da giroa. Madrilen hasieran hotz-hotzak dira, txakurrak bezalakoak, beldurra usain-

tzen badute... lepora salto egiten dizute. Baina gero ezagutu egiten bazaituzte eta gustatzen bazaie, gogo handiz hartzen zaituzte hurrengo aldian.

Aurrera begira zein asmo dituzu, bakarriketekin jarraitzea, Euskal Herrira itzultzea...

Etorkizuna han ikusten dut, Madrilen, serie bateko gidoilari gisa jardutea gustatuko litzaidake edo bestela AEBtara joan, ingelesa ikasi eta komedia lantzea, bakarriketak asko lantzen baitira han. Egia esan, nire bigarren ametsa komedia ingelesez egitea da.

Bakarriketa saiorik ba al duzu hitzartuta?

Madril aldean "bolo" bat edo beste atera zait oraintsu, Paramount Comedy-ekin ere kontakturen bat izan dut aurrera begira eta ekainaren 26an, 23:00tan, Lasarte-Oriako Abend tabernan arituko naiz, 25 minutuko gaztelaniazko bakarriketa izango da, sorpresaxo batekin... Ikusi nahi duenak hurbil dadila!

ADURIZ DE LASARTE S.A

Solomoa baratxuritan

Odolkia- Solomo ontzutua

Tripakiak- Saltxitxak

Txistorra

Etxeko txorizoa

Basurde burua

Baserri pateaa



BERTAKO FABRIKAZIOA

Loidi Barren kalea 3 • Tel: 943 361 278 - 943 361 655 - 943 362 451

Lasarte-Oria

“Gehienbat niri gertatutako pasarteak erabiltzen ditut. Gertaera negatiboei aurpegi ona aterata egiten ditut monologo onenak”

ATLETISMOA.-

IGERIKETA.-

Landaberriko gazteak hirugarren Valentzian

Landaberri ikastolako taldeak apirilaren 28 eta 29an Valentzian izan zen "Atletismoarekin gozatzeko" ekimeneko finalean bronzeko domina lortu zuen.

Ane Galardi, Eneritz Busto, Idoia Olasagasti, Maria Eugi eta Oihana Igarrirek osatzen duten taldeak sei arerio izan zituen eta hirugarren postuan amaitu zuten lehiaketa.

Amaia Andresek entrena-tzaileak azaldu digunez, "meritu handia da esperientzia handiko ikastetxeen aurka lehiatu baitira."

Gainera egindako talde lana azpimarratu du, "gehienek markak hobetzea lortu zuten eta ez zen akatsik egon lehiaketa osoan".

Entrenatzaileak adierazi digunez, proba bakoitzean hiru atletek parte hartzen zuten eta bi marka onenak hartzen ziren kontuan.

Gazteek egin behar izan zituzten probak 60 metroko lasterketa, 60 metrotako hesilasterketa, 2 km. martxa proba, altuera jauzia, pisua, 1000 metrotako iraupen proba eta 4x100 metrotako erreleboa dira.

Honela, altueran, 60 metroetan eta erreleboan lortutako garaipenek hirugarren postua lortzeko balio izan ziren herriko gazteei.

Gaztetxoak ederki ligako jardunaldian

Helburuak bete direla adierazi du Borja Apeztegia entrenatzaileak

Igeriketako ligako bosgarren jardunaldia izan zen lehenengo asteburuan eta Buruntzaldea IKT-ko txikienek haien trebetasuna erakutsi zuten estiloetako probetan. Ederki aritu ziren igerian eta gaztetxoetako batzuk garaipena lortu zuten haien probetan.

Buruntzaldea IKT benjaminak eta alebinak, apirilaren 28an, Tolosan izan ziren, ligako bostgarren jardunaldian parte hartzen.

Borja Apeztegia entrena-tzailearen hitzetan, "ligari amaiera emateko saio txukuna osatu zuten gure igerilariek".

Benjaminak

Benjaminak 100 estiloak proba izan zuten.

2003an jaiotakoan artean, Leire Martinek lehenengo postua eskuratu zuen eta Jon Millan bigarren izan zen.

2002an jaiotakoan artean Irati Arzallus izan zen azkarrena eta Lander Sorozabalek bigarren postua lortu zuen.

Honetaz gain, 6x25 estiloak errelebo mixtoa izan zuten. Buruntzaldeak hiru talde aurkeztu zituen eta "oso txukun eta oso gustura aritu ziren".

Alebinak

2001ean jaiotako gaztetxoek eta 2000 urteko mutilek 200 estiloak proba izan zuten.

2001 urteko nesken mailan lehen lau postuetan herriko taldeko neskek izan ziren. Nahia Jie Villamediana izan zen lehena. Leire Carcedok bigarren postualrotu zuen, Nora Irazustak hirugarrena eta Amaia Izagirre laugarren izan zen.

Adin berean, Jon Soto izan zen taldeko azkarrena, hirugarren postua lortuz. Proba honetan, Ibon Etxarri laugarren izan zen.

2000ko mutilen artean Beñat Alkortak seigarren postua lortu zuen.

Azken urteko alebinek, hau da, 2000an jaiotako neskek eta 1999ko mutilek 400 estiloak proba izan zuten.

Nesketan Janire Berasarte bigarren postuan sailkatu zen eta Maialen Casado hiruga-



Ederki egin zuten igerian Buruntzaldea IKT-ko gaztetxoek.

BURUNTZALDEA IKT

ren izan zen. Eta 1999ko mutiletan Iñaki Etxebeste izan zen azkarrena zazpigarren postua eskuratu zuen.

Alebinek saioa amaitzeko 4x50 bular erreleboa izan zuten.

Nesketan bi errelebo izan ziren eta biak lehen postuetan sailkatu ziren.

Ainara Garciak, Janire Berasartek, Maialen Casadok eta Nahia Jie Villamedianak osatutako taldeak lehen postua lortu zuten; Leire Carcedok, Amaia Izagirrek, Nora Irazustak eta Erika Rodrigue-

zek osatutakoak berriz, bigarrena. Mutilen erreleboak laugarren postua eskuratu zuten.

"Jada denboraldi amaieran sartuta gaude eta adin bakoitzarentzat genituen helburuak ondo beteta iritsi gara," aipatu du Buruntzaldea IKT-ko entrenatzaileak.

Baina oraingorik ez dute atsedetik izango, alebinek Gipuzkoako txapelketak izango dituzte hurrengo asteburuan, maiatzaren 12 eta 13an, Azpeitian eta benjaminak Lasarteko Sarian izango dira, ekainaren 16an.

ARETO-FUTBOLA.-



Txindokik gol bakarreko errenta du Izkiña tabernaren kontra (1-0) eta ezer ez dago erabakita itzuliko partiduen faltan.

Herriko txapelketa azken txanpan

Osada SKT-k antolatzen duen areto-futboleko herriko txapelketako final erdietetako joaneko partidak jokatu ziren ostiralean kiroldegian.

Hauetan bi norgehiagoka interesgarri ikusi ahal izan

ziren. Lehenengo partidari, Txindoki eta Izkiña taldeak aritu ziren buruz buru. Iazko txapelduna eta liga erregularrereko lehen sailkatua.

Bigarrenetan, berriz, ISU Leihok iazko txapeldun ordeak Buenetxea izan zuten

arerio.

Itzuliko partiduen faltan, honelaxe daude oraingoz finalurrekoak emaitzei dagokienez: Txindoki 1 - Izkiña 0 eta ISU Leihok 2 - Buenetxea 1. Finalera iristeko, dena eman beharko dute guztiak.

LABURRAK.-

Endika Gartzia bigarren Azkoitiako duatloiean

Azkoitiako duatloia burutu zen, apirilaren 28an eta honetan Endika Gartzia herritarrek zilarrezko postua eskuratu zuen.

Parte hartzaileek 8 kilometro korrika, 36 km. txirrinan eta azkenik, 4 kilometro lasterka egin behar zituzten.

Endika Gartzia eta Antxintxika taldeko Ander Agirre izan ziren lehiaketa buruan, baina azken 4 kilometroetan Anderrek aurre hartu eta garaipena eskuratu zuen 1:28:11 denbora eginez. Gartzia herritarra bigarren iritsi zen helmugara bederatzita segundora.

Esteban Martinez judoka hirugarren Italian

Apirilaren 28 eta 29an, LOKEko Esteban Martinez eta Oscar Garridok Italiako Genoako nazioarteko txapelketan parte hartu zuten.

Estebanek junior mailan, zazpi borroka egin ostean, bronzeko domina eskuratu zuen. Oscarrek, berriz, kadete mailan bosgarren postuan amaitu zuen zuen.

Kirol Udalekuen izena ematea

Lasarte-Oriako Kirol Udala Zerbitzuak kirol udalekuak antolatu ditu 8 eta 12 urte bitarteko gaztetxoentzat. Honetan kirol eta joko ezberdinak ezagutuko dituzte, hala nola, tenisa, piraguis-moa, eskujokoak, olinpiada eroak... Buruntzaldeko ibilbideetatik barrena txangoa eta hondartzara irteera ere egingo dituzte.

Prezioari dagokionez, 125 eurotako izango da kiroldegiko bazkieentzat, hamabostaldia bakoitzeko. Taldeak gehienez 20 partide izango ditu eta plazak mugatuak direnez hurrenkera errespetatuko da.

Inskribatzeko edo informazio gehiago jasotzeko udal kiroldegiko bulegora zuzendu behar dira interesatuak, astelehenerdik ostiralera, 10:00etatik 12:30ra eta 17:00etatik 19:00etara.



Lasarteoriatar ugari hurbildu zen Azkorteko ermitan egin zen mezara.



Eguraldia lagun izan zen eta Azkortera hurbildu zirenek harri-jasotzaile eta aizkolarien saio ederra ikusi zuten.



Amalur eskolako lagunek erromeria girotu eta jende dantzan jarri zuten.



Andoni Otamendik eta Zigor Iriondok bertsoak kantatu zituzten.

Giro ederra Azkorten

Lasarteoriatar ugari hurbildu zen meza eta erromeriara

Atzo, Santa Krutz eguna ospatu zuen Lasarte-Oriako Azkorteko ermitan. Herritar ugari izan zen urteroko hitzordu honetan. Meza, bertsolariak, herri-kirolak eta musika izan ziren Ttakun kultur elkarteak antolatzen duen erromerian. Haize hotza eta lainoak egon arren, giro ederra sortu zen ermita inguruan.

Harri-jasotzaileak eta aizkolariak ere lanean izan ziren. Proba ezberdinak ikusi hala izan zituzten erromeriara hurbildu zirenek.

Lehenik Aratz Mugerza eta Jokin Alkizalete aizkolariak ea nor kolpe gutxiagotan egurra moztzen zuten jokatu zuten.

Jarraian, Beñat Telleriak 5 jasoaldi egin zizkion 125 kiloko zilindro zaharrari eta lagoba Otaegik 100 kiloko kubikoan 2 minutuko saioa egin zuen.

Aizkolarien hurrengo lana enborra ahal zuten denbora gutxien moztekoa izan zen.

Azkenik, proba konbinatua izan zen. Honetan lagoba-Aratz eta Beñat-Jokin izan ziren bikoteak. Lana 100 kiloko zilindro zaharrari 6 jasoaldi egin ostean, enbor bat moztekoa izan zen. Mugerza eta Otaegi izan ziren garaileak.

Ospakizunak Amalur-eko lagunak donuekin amaitu zen eta izan ziren dantza egiten animatu zirenak.

Nerea EIZAGIRRE

Azkorteko gurutze gure zaindaria, zure oinetan dituzu Lasarte eta Oriak, horrela diote Azkorteko ereserkiko lehengo hitzek eta horregatik, nahiz eta laino ugari izan zeruan, asko izan ziren Azkorteko ermita eta bere inguruetan izan ziren herritarrak.

Hamaikak baino lehen, autobusez edo oinez iritsi eta ermitara sartzen ziren gehienak meza entzuteko lekuaren bila.

Iñaki Aranzadik eskainitako meza Amalur trikiti eta pandero eskolako lagunak eta Alboka abesbatzako kideek

girotua izan zen. Bertsoak, euskal doinuak eta agurra ere entzun ahal izan ziren.

Ermitako ospakizuna amaitu eta Biyak Bat erretiratu elkarteko eta Ttakun kultur elkarteko kideek patata tortila, salda, txorizo, odolki eta haragi egosia prest zuten, erromesek indarrak berreskuratu ahal izateko.

Musika, hitza eta kirola

Bitartean, Amalur trikiti eta pandero eskolako gaztetxoek haien doinuez berotu zuten giroa.

Andoni Otamendi eta Zigor Iriondo Lasarte-Oriako Bertso-eskolako kideek ere bertso-saioa eskaini zuten.



Krisi garaian, guk ere esfortzua egin nahi izan dugu, gure prezioetan!

MAITE
ESTETIKAKO ARETOA

foto depilazioa argi pultsatuekin

- Era ezberdinetako depilazioak
- Aurpegiko tratamenduak
- Gorputzeko tratamenduak
- Makillajeak
- Beste hainbat zerbitzu

Uistin Kalea z/g • Tel.: 943 370845 • Lasarte-Oria

Agenda

Astelenetik Ostegunera, 19:30ean, Manuel Lekuona kultur-etxea

Berradiskidetzea aztertuz

Danok Kide elkarteak gizarte balioen inguruko "Balioetan Hezi" IX. jardunaldiak antolatu ditu. Helburua "bizikidetzaren berradiskidetzea" lortzea izango da, bai maila pertsonalean eta baita gizarte mailan ere. Hitzaldi zikloko zuzendaria Pello Sarasua izango da, Baketik taldeko kidea eta koordinatzaile lanetan, Xabier Andonegi parrokoa dago.

Hitzaldiak:
Astelehena 7
 "Gatazkari hurbiltzea"
Astearte 8
 "Gatazken eta berradiskidetzaren aurrean norberaren konpromisoa"
Asteazkena 9
 "Gatazken eta berradiskidetzaren aurrean gizartearen konpromisoa"
Osteguna 10
 "Sufrimendua eta gatazkak"



Ikuskizuna

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Larunbata 12, 16:30ean eta 19:00etan

Pirritx, Porrotx eta Marimotots herriko pailazoek "Zazpikoloroa" ikuskizuna eskainiko dute. Sarrera internet bidez, 5 euro eta leihatilan 6 euro.



Musika

SAGARDOTEGI KALEA
Ostirala 11, 20:00etan

Izaskun eta Uxue trikitilari eta pandero jolearen saioa.

Erakusketa

JALGI KAFE-ANTZOKIA
Maiatzean zehar

Mundu Bat GKE-ren "Amerika erdialdeko emakumeak: halakoak gara, halaxe borrokatzen dugu" argazkien erakusketa ikusgai dago.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Maiatzaren 9tik 16ra

Lasarte-Oria elkarteek marrazki eta margo ikastaroko ikasleen erakusketa ikusgai izango da.

Lasarte-Oria Zinema

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Osteguna 10, 21:30ean

Osteguneko zinea atalean, "Le Havre" filma eskainiko da, Okendo Zinema taldearen eskutik. Gaztelaniaz. Sarrera 4,40 euro.

Igandea 13, 19:30ean

Okendo Zinema taldearen eskutik, "Le Havre" filma eskainiko da, helduentzako zinea atalean. Gaztelaniaz. Sarrera 5,50 euro.



MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Igandea 13, 17:00etan

Haurrentzako zinea atalean, "Dr Seuss' Lorax: en busca dela trífula perdida" filma ikusgai izango da. Gaztelaniaz. Sarrera 3,40 euro.

Antzerkia

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Ostirala 11, 20:30ean

"La lechuga" antzerki lana eskainiko

du Glu-glu produkzioak. Gaztelaniaz. Sarrera internet bidez, 5 euro eta leihatilan 6 euro.

OKENDO PLAZA
Larunbata 12, 21:30ean

Deabru Beltzak taldeak "The Wolves" kale antzerki beldurgarria dakar gure herriko kaleetara.

Bakarrizketa

JALGI KAFE-ANTZOKIAN
Ostirala 11, 22:30ean

Barry Barrez-ek "An Seanachai road show" umorezko bakarrizketa eskainiko du.

Herritarren txokoa

Arrantza irteerak

Buruntz-Azpi elkarteak arrantzan egiteko bi irteera antolatu dituela jakina razten die bazkide eta herritarrei, bata maiatzaren 13an eta bestea maiatzaren 20ean.

Maiatzaren 13ko txangoan xixarearekin egindako arrantza izango da eta 20koa, berriz, arrantzaldi arinekoa.

Irteeratan izena emateko Buruntz-Azpi elkartera hurbildu behar dira interesa dutenek, astearte eta ostegunetan 19:00etatik 20:00etara.

Inskripzioa irekita dago. Xixare arrantzan parte hartzeko izena emateko azken eguna maiatzaren 10a da eta arrantza arineko txangorako, aldez, maiatzaren 17a izango da.

Herri Urratsera autobusa

Ttaku kultur elkarteak maiatzaren 13an Senperen antolatuko den Herri Urratsera joateko autobusa jarriko du. Autobusa 9:00etan aterako da Sagardotegi kaletik.

Txartelak salgai dira Ttaku-eko bulegoan eta Jalgi kafe-antzokian. Ttaku-eko kide eta gazteentzat 12 eurotan izango dira salgai eta gainon-

tzekoek 14 euro ordaindu beharko dituzte.

Txakurra galdu da

Thor hiru urteko Spaniel Bretona galdu zen apirilaren 21ean Cocheraseko bidegorriaren inguruan. Kolore gorri-ka du txuri gutxiarekin. Mikrotxipa dauka.

Norbaitek aurkitu badu honako telefonoetara deitzea eskertuko genuke 687 571 037 eta 670 950 785. Sarituko da.

Maria Auxiliadora elkartearekin Lourdes-era txangoa

Maria Auxiliadora elkarteak Lourdes-era txangoa antolatu du maiatzaren 13rako. Prezioa 27 euro dira.

Izena emateko, 943 363 675, 943 360042 edo 943 364 296 zenbakietara deitu behar da gaueko 21:00etatik 22:00etara.

Hirigintza saila Ganbo kalean

Lasarte-Oriako udalak gogora arazi nahi du Obrak eta Hirigintza sailaren zerbitzua publikoarentzat irekita dagoela Ganbo Kaleko 1. zenbakian.

Haurren txokoa

Aurkitu Lasarte-Oriako 10 xomorro

L	P	E	P	U	D	X	L	Z	W	D	Z	Q	C	U
Y	B	L	N	O	C	F	S	A	F	B	P	A	T	M
K	N	B	M	E	V	Y	V	P	S	P	U	O	L	O
A	P	N	E	R	K	G	Y	A	T	O	P	T	L	S
L	O	N	E	L	F	Z	G	T	X	X	A	L	G	S
Y	V	G	A	E	C	F	R	E	I	A	I	A	V	E
X	Q	H	N	A	W	G	X	K	M	K	N	S	E	O
A	K	T	E	A	L	S	W	O	E	M	U	N	H	R
Z	D	U	A	U	Z	G	O	A	L	I	R	I	B	B
X	S	O	K	V	L	N	Y	L	E	A	R	X	N	B
Q	I	N	U	D	D	I	U	W	T	R	I	T	V	Z
O	H	H	Q	W	A	Q	A	E	A	M	A	A	N	G
E	D	V	C	X	M	M	U	Z	K	A	G	M	J	L
T	F	S	O	R	G	I	N	O	R	R	A	T	Z	A
Z	K	W	K	A	X	T	U	R	U	K	U	K	T	S

ARMIARMA
 ERLEA
 EULTA
 EUNZANGOA
 INURRIA
 KUKURUTXAK
 MATXINSALTOA
 SORGINORRATZA
 TXIMELETAK
 ZAPATEROA

euska1.info

Bazenekien...

...Odontomachus Bauri deritzon inurri latiniamerikarra da naturan ezagutzen den animaliarik azkarrena. Begi baten keinua baino 2300 aldiz azkarrago ixten eta irekitzen ditu bere masailezurak

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko: Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info